**UDALA ERATZEKO BILKURA**

**2015eko ekainaren 13a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamabortzeko ekainaren hamahiruan, larunbata, eguerdiko hamabiak direla bildu dira azken hauteskundeetan hautaturiko zinegotziak, Udala eratzeko eta alkatea aukeratzeko. Hori dena honako Lege eta arautegi hauetan xedatutakoa betetzeko: 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituena, eta Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamendua arautzen dituena.

Ekitaldira, honako zinegotzi hautetsi hauek etorri dira: Jose Luis Echegaray Andueza, Iban de Prado Etxepeteleku, Pedro Apezteguia Alzugaray, Maria Victoria Gortari Aldave, Esteban Irazoqui Irazoqui, Jose María Portu Ochoteco, Maider Arrieta Tapia, Oier Iantzi Ordoki, Lorea Flores Compains eta Severiano Choperena Machicote jaun-andreak. Beraz, hautaturiko zinegotzien gehiengo osoa etorri da bilkurara.

Bakarrik falta da Mattin Etxabide Gartzia zinegotzi hautetsi jauna, eta ez etorri izana justifikatu du.

Idazkari-lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

**SESIÓN CONSTITUTIVA DEL AYUNTAMIENTO**

**13 de junio de 2015**

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las doce del mediodía del sábado trece de junio de dos mil quince, se reúnen los concejales electos en las últimas elecciones, con objeto de proceder a la constitución de la Corporación Municipal y a la elección del alcalde, todo ello en virtud de lo dispuesto en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General, en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Concurren los siguientes concejales electos: don José Luis Echegaray Andueza, don Iban de Prado Etxepeteleku, don Pedro Apezteguía Alzugaray, doña María Victoria Gortari Aldave, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, doña Maider Arrieta Tapia, don Oier Iantzi Ordoki, doña Lorea Flores Compains y don Severiano Txoperena Matxikote. Por lo tanto han acudido a la sesión la mayoría absoluta de los concejales electos.

Falta únicamente el concejal electo don Mattin Etxabide Gartzia, quien ha excusado su inasistencia.

Actúa como secretario el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Aldez aitzinetik, udal idazkaritzan jaso dira zinegotzi hautetsien kredentzialak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko 7. artikuluan xedatutakoaren arabera. Bertzalde, denek aurkeztu dute sor daitezkeen bateraezintasunen arrazoiei buruzko aitorpenak, baita diru-sarrerak ematen dizkieten edo ematen ahal dizkieten jarduerei buruzko aitorpenak ere. Halaber, ondarezko ondasunei buruzko aitorpenak ere aurkeztu dituzte, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 75.5 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Previamente se han recibido en la Secretaría municipal las credenciales de los concejales electos, conforme a lo dispuesto en el artículo 7 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales. Por otra parte, todos ellos han presentado la declaración sobre causas de posible incompatibilidad y sobre actividades que les proporcionen o pueden proporcionar ingresos económicos, así como declaraciones de sus bienes patrimoniales, según lo señalado en el artículo 75.5 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

**ADIN-MAHAIA OSATU ETA UDALA ERATZEA**

Udalbatza eratzeko, Adineko Mahaia osatu da. Hor, honako zinegotzi hautetsi hauek hartu dute parte: mahaiburu gisa, Jose Luis Echegaray Andueza jaunak, ekitaldian dauden zinegotzi hautetsien artean bera baita zaharrena; Oier Iantzi Ordoki, denetan gazteena delako, eta idazkari lanetan, udalekoa.

Berehala, Adineko Mahaiak egiaztatu ditu Idazkaritzan entregatutako kredentzialak, eta ikusi du denak behar bezala aurkeztu direla.

Udal hau hamaika zinegotzik osatzen dutenez eta ekitaldira, Mahaiak egiaztatutakoaren arabera, hamar agertu direnez, bete egin da Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 195.4 artikuluak eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen

**FORMACIÓN DE LA MESA DE EDAD Y CONSTITUCIÓN DEL AYUNTAMIENTO**

A fin de constituir la Corporación, se forma la Mesa de Edad, integrada como presidente, por el concejal electo don José Luis Echegaray Andueza, por ser el de mayor edad entre los concejales electos presentes en el acto, por el concejal electo don Oier Iantzi Ordoki por ser el de menor edad, actuando como secretario el de la Corporación.

Acto seguido, la Mesa de Edad comprueba las credenciales entregadas en la Secretaría, hallando que se hallan presentes todas ellas en la debida forma.

Formando este Ayuntamiento un número de once concejales, y habiendo concurrido al acto, según comprobación de la Mesa, diez de ellos, se cumple el requisito a que se refiere el artículo 195.4 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General y el artículo 37.4 del Reglamento de Organización,

Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 37.4 artikuluak xedatutako baldintza. Horien arabera, Udalbatza eratzeko, beharrezkoa da zinegotzi hautetsien gehiengo absolutua etortzea.

Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, que dispone que para la constitución de la Corporación es precisa la asistencia de la mayoría absoluta de los concejales electos.

Ondoren, eta Hauteskunde Erregimenaren Lege Organikoaren 108.8. artikuluan aurreikusitakoa betez, zinegotzi berriei eskatu zaie zin edo promes egiteko. Horretarako, apirilaren 5eko 707/1979 Errege-Dekretuan xedatutakoaren arabera, honako galdera hau egin zaie: "Zin edo promes egiten duzue, kontzientzia eta ohoreagatik, zinegotzi karguari dagozkion betebeharrak zintzoki beteko dituzuela, Erregeri leialak izanik eta Konstituzioa, Estatuaren funtsezko arau gisa, bete eta betearaziko duzuela?".

Seguidamente, de acuerdo con lo establecido en el artículo 108.8 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, los nuevos concejales son requeridos para prestar solemne juramento o promesa. Para ello, de conformidad con lo establecido en el Real Decreto 707/1979, de 5 de abril, se formula la siguiente pregunta: "¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones de vuestro cargo de concejal con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución, como norma fundamental del Estado?".

Baietz erran dute denek eta adierazi dute formula hori betetzen dutela legeak hala agintzen duelako.

Así lo afirman todos ellos, indicando que cumplen con la fórmula por imperativo legal.

Hala, hamar zinegotziek dagozkien karguak hartu dituzte.

De este modo, los diez concejales toman posesión de sus respectivos cargos.

Lan horiek guziak egin ondoren, Adineko Mahaiak eratutzat eman du Lesakako Udalbatza.

Realizadas las operaciones anteriores, la Mesa de Edad declara constituida la Corporación de Lesaka.

**ALKATEA HAUTATZEA**

Ondoren, eta errandako Lege Organikoaren 196. artikuluan aurreikusitakoa betez, alkatea aukeratzeko prozedura hasi da. Euren zerrendetan buru izateagatik alkate izaten ahal diren zinegotzien berri eman da. Honako hauek dira:

**ELECCIÓN DEL ALCALDE**

A continuación y cumpliendo lo prevenido en el artículo 196 de la referida Ley Orgánica, se procede a la elección de alcalde. Se da cuenta de los concejales que por encabezar sus correspondientes listas, pueden ser candidatos a alcalde y que son los siguientes señores:

- José Luis Echegaray Andueza jauna.

- Maider Arrieta Tapia andrea

Berehala, adierazi da alkatea aukeratu behar dela, eta hori bozketa bakarraren bidez eginen dela; hor, zinegotzi jaun-andreek bakarrik hartuko dute parte, hamar zinegotziek, hain zuzen.

Ondoren, mahaiburu jaunak bozketa hasteko agindua eman du; boto-txartelak entregatu dira, eta horiek horretarako prestatu den kartazal batean sartu dira. Bozketa bukatuta, zenbaketa egin da, txartelak banan-banan aterita. Hau da emaitza:

- José Luis Echegaray Andueza, 6 boto.

- Maider Arrieta Tapia, 4 boto.

Zenbaketa bukaturik, inolako protestarik izan gabe -ez bozketari buruz, ezta zenbaketaren aurka ere-, Jose Luis Echegaray Andueza jauna izendatu da, legalki, udal honetako alkate.

Ondoren, Jose Luis Echegaray jaunak kargua hartu du, horretarako aldez aurretik hitz-emate serioa eginez, arestian aipaturikoaren arabera. Zehaztu du hori egiten duela legeak hala agintzen duelako.

Jarraian, idazkariak adierazi du ezen, kontuhartzaile-diruzainak ekainaren 12an sinatutako dokumentuaren arabera, egun horretan, kutxako kontaketa eginda, guztira, 1.263.582,15 euro zirela Udalaren kontu ezberdinetan. Nafarroako Entitate Lokalen Ondasun Arautegiaren 88.1 artikuluak, urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsia, xedatzen du inbentarioa

- Don José Luis Echegaray Andueza.

- Doña Maider Arrieta Tapia.

Inmediatamente se indica que se va a proceder a la elección de alcalde, y que ésta se efectuará mediante una sola votación en la que tomarán parte solamente los señores concejales que son el número de diez.

Seguidamente el señor presidente ordena el comienzo de la votación, entregándose las papeletas, que son depositadas en un sobre preparado al efecto. Finalizada la votación se procede al escrutinio, que se realiza sacando las papeletas una a una y dando el resultado siguiente:

Don José Luis Echegaray Andueza, 6 votos.

Doña Maider Arrieta Tapia, 4 votos.

Terminado el escrutinio, sin que se haya producido protesta alguna sobre la votación o contra el escrutinio, se declara proclamado legalmente alcalde de este Ayuntamiento a don José Luis Echegaray Andueza.

Acto seguido, don José Luis Echegaray toma posesión del cargo de alcalde, para lo cual previamente ha prestado solemne promesa, a tenor de la fórmula anteriormente reseñada. Precisa que lo hace por imperativo legal.

A continuación, el secretario indica que, conforme al documento suscrito por el interventor-depositario el día 12 de junio, efectuado un arqueo de caja, resulta que, con esa fecha, en las diversas cuentas del Ayuntamiento había un total de 1.263.582,15 euros. El artículo 88.1 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra, aprobado Decreto Foral 280/1990, de 18 de octubre,

egiaztatuko dela korporazioa aldatzen den bakoitzean. Horren inguruan, idazkariak adierazi du Udalak ez duela eguneraturiko inbentariorik.

Lesakako Andra Mari Zahar-Etxea Udaleko Erakunde Autonomoari dagokionez, lehen aipatu den kontuhartzaile-diruzainaren zenbaketaren arabera, egun hartan erabilgarria zen diru-kopurua 37.866,51 euro ziren. Aipaturiko Erakunde Autonomoak ere ez du inbentariorik.

Horren ondotik, alkate jaunak hitz batzuk erran dizkie zinegotzi berriei, agurtzeko.

Bere aldetik, Maider Arrieta zinegotzi andreak honako hau adierazi du: "Gaur datozen 4 urteei begira bide berri bat hasten du Udal honek. Eskerrak eman nahi dizkizuegu lehenik, gure aldeko hautua egin eta babesa eman diguzuen herritarrei. Baita bertze aukera batzuk hautatuz herriaren hoberena desio duten herritar guziei ere. Euskal Herria Bilduk jarrera eraikitzailea eta irekia izanaz, herritarrekin batera herriaren alde egiten jarraitu nahi dugu, gaur atzo bezala, berdin Udal Gobernuan nahiz oposiziotik.

Euskal Herria Bilduk, gure herrian ireki den ziklo politiko berria bururaino eramateko lan egingo dugu herriz herri zein nazio mailan. Gure etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidearen aldeko herri aldarria bultzatu eta sendotuz, herri libre bat izateko aukera erreal baten aitzinean gaude. Baita, gatazkak azken urteetan utzi dizkigun ondorio mingarriak gainditzeko aukera baten aitzinean ere.

establece que el inventario de comprobará siempre que se renueve la Corporación. Al respecto el secretario señala que el Ayuntamiento no cuenta con un inventario actualizado.

En lo referente al Organismo Autónomo del Ayuntamiento Residencia Andra Mari de Lesaka, conforme al citado arqueo del interventor-depositario, el líquido disponible ascendía en esa fecha a 37.866,51 euros. El citado Organismo Autónomo carece también de inventario.

Tras ello, el señor alcalde dirige unas palabras de salutación a los nuevos concejales.

A su vez, la concejal doña Maider Arrieta indica: "Hoy este Ayuntamiento comienza un nuevo camino, mirando a los 4 próximos años. Queremos agradecer en primer lugar a los ciudadanos que han optado por nosotros y nos han apoyado. También a todos los ciudadanos que, eligiendo otras alternativas, desean lo mejor para el pueblo. Manteniendo Euskal Herria Bildu una actitud constructiva y abierta, queremos seguir actuando a favor del pueblo junto con los ciudadanos, hoy como ayer, lo mismo en el gobierno municipal que desde la oposición.

En Euskal Herria Bildu, para llevar hasta su culminación el nuevo ciclo político que se ha abierto en nuestro pueblo, trabajaremos tanto pueblo a pueblo como a nivel nacional. Impulsando y fortaleciendo la reivindicación popular a favor del derecho para decidir libremente nuestro destino, estamos ante una opción real para ser un pueblo libre. También ante una oportunidad para superar las dolorosas consecuencias que nos ha dejado el

conflicto en estos últimos años.

Lau zutabe nagusitan zehaztuko dugu gure ekarpena:

- Erabakitzeko eskubidearen aldeko lanean akordio ahalik eta zabalenak bilatuko ditugu, instituzioetan zein kaleko eragileekin, Euskal Herriaren etorkizuna euskal herritarron eskuetan egon dadin.

- Bigarrenik, Udala herritarrena izatea nahi dugu, azken 4 urteetan marraztutako bideari jarraipena emanaz eta herri eragileen parte hartzean sakonduz.

- Norabide berean, instituzioen gardentasuna aldarrikatu eta gauzatuko dugu, helburu hori duten eragile zein alderdiekin bat eginaz.

- Azkenik, euskal herritar guzien eskubide sozialak izanen ditugu lehentasun eta guttien dutenen aldeko lana izango da gurea, murrizketa sozialei aurre egin eta bizitza duin baterako pertsona orok behar dituen baldintzak borrokatuz.

Herria lesakar guzien artean eraikitzea nahi dugu eta bide horri hasiera eman genion bezala jarraituko dugu lanean. Ez gara gu izanen herritarren arteko zatiketa bultzatuko dutenak. Aunitz da elkartzen gaituena eta denon Lesaka egitea posible da.

Beraz, eraiki dezagun denon arten Lesaka parekideago, justuago eta euskaldunago bat".

Aipatutako egunaren eguerdiko hamabiak

Concretaremos nuestra aportación en cuatro pilares fundamentales:

- Buscaremos los acuerdos lo más amplios posibles a favor del derecho a decidir, tanto con agentes de las instituciones como de la calle, a fin de que el futuro de Euskal Herria esté en manos de los ciudadanos vascos.

- En segundo lugar, queremos que el Ayuntamiento sea del pueblo, dando continuidad al camino trazado durante los 4 últimos años y profundizando en la participación de los agentes populares.

- En la misma dirección, reivindicaremos y llevaremos a la práctica la transparencia de las instituciones, uniéndonos tanto a los agentes como a los partidos que tienen ese objetivo.

- Por último, tendremos como prioridad los derechos sociales de todos los ciudadanos vascos y nuestro trabajo será a favor de quienes tienen menos, haciendo frente a los recortes sociales y luchando para que todas las personas tengan las condiciones que necesitan.

Queremos construir el pueblo entre todos los lesakarras y de la misma forma que dimos inicio a ese camino, continuaremos trabajando. No seremos nosotros quienes impulsen la ruptura entre ciudadanos. Es mucho lo que nos une y es posible hacer la Lesaka de todos.

Por ello, edifiquemos entre todos una Lesaka más igualitaria, justa y euskaldun".

Siendo las doce horas y diez minutos del

eta hamar minutu direla, eta, eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.